**Azalpen txostena, Gizarte Politiketako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta dituen desberdintasun nagusiei eta aurrekontuak prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa. .**

Gizarte Politiketako Departamentuaren 2021eko aurrekontuak azpimarratzeko kreditu hazkundea dakar, 2020ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta, helburu bikoitz batekin: alde batetik, COVID19aren pandemiak sortutako eraginak arintzea eta, bestetik, 2018-2021eko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen urteko helburuak betetzeko bidera itzultzea.

Lehenik, eta ikusita COVID19k gehien kaltetutako esparruetako bat egoitzetakoa eta eguneko zentroetakoa izan dela, 2021eko aurrekontuan 20 bat partida daude aipatutako urteko kreditu hazkundearen erdiaren zuzkidura dutenak eta bereziki zuzenduta daudenak Departamentuaren eskumen esparruetan eskaini beharreko zerbitzuen kalitate mailan pandemiak sortutako eragin txarrak arintzera:

a.- Bere izenean COVID19 kontzeptua daramaten aurrekontu sailak, ondorengo jaurduerak garatu ahal izateko:

- Egoitzetan eta eguneko zentroetan COVID19 gune espezifikoak sortzeko gastuari aurre egiteko direnak. Gune horiek erabateko erabilgarritasuna izango dute.
- Desgaituen, adinekoen eta bazterkeri egoeran dauden pertsonen isolamendurako guneak sortzeko direnak.
- Indartu behar diren zerbitzuetan ezohiko gastuak egiteko aurrekontu sailak, bai izaera orokorreko zerbitzuetan, hau da egokitutako garraioa, garbiketa edo desinfekzioak, bai arreta zerbitzuetan, hala nola zaintza, ikuztegia, kateringa eta bestelako zerbitzuak kanpoko enpresen bidez emateko.
- Norbera babesteko ekipamenduak (NBE) eta osasun materiala erosteko eta biltegiratzeko, eta zentroetako erabiltzaileen eta langileen artean banatzeko zuzkidura.
- Harremanen ikuspuntutik, kanpoko instalazioetan bisitak egiteko eta bideo deiak tamaina handiko pantailen bidez egin ahal

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Políticas Sociales respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El presupuesto del Departamento de Políticas Sociales para 2021 cuenta con un significativo incremento de créditos sobre el presupuesto inicial de 2020 con un doble objetivo, Por un lado , el de mitigar los efectos de la pandemia del COVID19 y por otro el de retornar a la senda de cumplimento de los objetivos anuales del Mapa de Servicios Sociales de Guipúzcoa 2018-2021.

En primer lugar y visto que uno de los ámbitos más perjudicado por el COVID19 ha sido el de residencias y centros de día, el presupuesto 2021 contiene una veintena de partidas que llevan una dotación conjunta por la mitad del citado incremento anual y que están destinadas especialmente a aliviar los negativos efectos de la pandemia en el nivel de calidad de los servicios a prestar en los ámbitos de competencia del Departamento:

a.- Partidas que incluyen en su denominación el concepto COVID19 para poder desarrollar las siguientes actuaciones:

- Las destinadas a afrontar el gasto de crear Zonas específicas COVID19 en residencias y centros de día. Estas zonas se caracterizarán por su total disponibilidad,
- Las destinadas a crear zonas de aislamientos para personas mayores dependientes, personas con discapacidad y personas en riesgo de exclusión social.
- Las partidas para gastos extraordinarios en servicios que deban ser reforzados, tanto de tipo general para transporte adaptado, limpieza o desinfecciones como de tipo asistencial para externalizar servicios como los de cuidados, lavandería, catering, etc.
- Dotación para el suministro y almacenaje de material sanitario y equipos de protección individual (E.P.I.s) así como para su distribución entre personas usuarias y trabajadoras de centros.
- En el aspecto relacional se incluyen los créditos necesarios para poder efectuar visitas en instalaciones exteriores y video llamadas en

izateko beharrezko kredituak sartu dira. Baita web aplikazio berriak sortzeko ere.

- Bukatzeko, euren etxera bueltatu nahi duten erabiltzaileen familientzako diru laguntza lerro bat ezartzeko zuzkidura aurreikusi da

Bigarrenik, eta pandemiaren intzidenzia 2021. urteko bigarren seihilabeteterako nabarmen jaitsiko delako esperantzarekin, eta kontuan hartuta 2020ko martxotik ez dela plaza berririk sortu Gizarte Politiketako Departamentuaren eskumeneko, 2021eko aurrekontuak beharrezko zuzkidura darama 2018-2021eko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen urteko estaldura helburuak betetzeko bideari berriz ekiteko, ondorengo jardueren bidez:

b.- Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetan plaza berriak sortzea

2018-2021eko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritakoarekin bat etorriz, 2021eko aurrekontuan aurreikusi da 3,3 milioi euroko zuzkidura plaza berriak sortzeko hainbat zerbitzutako itxaron zerrendak murriztearren, batez ere desgaituen eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen eremuetan. Orobat, aurreikusi da ez egonkortutzat jotzen diren zerbitzuak (berriak edo gutxi garatuak) pixkanaka finkatzea. Horrela, 2021ean eguneko arretako 76 plaza eta egoitza izaerako 167 plaza zabaltzea aurreikusten da Departamentuaren jarduera esparru osoan.

c.- Adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroetako hitzarmena eta gizarte esku-hartzeko hitzarmena ezartzea.

Gipuzkoako adineko pertsonentzako egoitzetako hitzarmen kolektiboa eta gizarte esku- hartzeko hitzarmena berrituko direla aurreikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiak milioi bat euro sartu du 2021eko aurrekontuan, aplikagarri diren tarifak eta prezioak entitate lankideekin sinatutako hitzarmenetara eta kontratuetara eguneratzeko. Tarifa horiei gehitu zaie aipatutako lan hitzarmenen inpaktu ekonomikoa, betiere Gizarte Politiketako Departamentuaren aurrekontuetan dagoen aurrekontu eskuragarritasunaren mugarekin.

pantalla de gran tamaño. Y también para la creación de nuevas aplicaciones web.

- Como colofón al sistema se ha previsto la dotación para una línea de ayudas destinada a las familias de las personas usuarias que deseen retornar a sus domicilios

En segundo lugar, con la esperanza de que la incidencia de la pandemia remita durante el segundo semestre, y dado que desde el mes de marzo de 2020 no se han creado nuevas plazas en ninguno en los sectores del ámbito de competencia del Departamento de Politicas Sociales, el presupuesto 2021 incluye la dotación necesaria para retomar la senda de cumplimiento de los objetivos anuales de cobertura del Mapa de Servicios Sociales de Guipúzcoa 2018-2021 mediante las siguientes actuaciones:

b.- Creación de nuevas plazas en servicios sociales de atención secundaria.

De acuerdo a lo previsto en el Mapa de Servicios Sociales de Guipúzcoa 2018-2021, se ha contemplado en el presupuesto la dotacjón de 3,3 millones de euros para la creación de nuevas plazas para reducir la lista de espera existente en diversos servicios principalmente en los ámbitos de personas con discapacidad y de personas en exclusión social, así como la progresiva consolidación de servicios considerados no estabilizados (nuevos o escasamente desarrollados). Así, está prevista la apertura en 2021 de 76 plazas de atención diurna, y 167 plazas de carácter residencial en el conjunto del ámbito de actividad del Departamento.

c.- Aplicación del convenio de residencias y centros de día para personas mayores y del convenio de intervención social

En previsión de que se renueven el convenio colectivo de residencias para personas mayores de Gipuzkoa y el convenio de intervención social, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha incluido en el presupuesto de 2021 un millón de euros que serán necesarios para la actualización de las tarifas y precios de aplicación a los convenios y contratos suscritos con las entidades colaboradoras, incorporando en las mismas el impacto económico de los convenios laborales señalados, con el límite de la disponibilidad presupuestaria existente en el presupuesto de gastos del Departamento de Políticas Sociales.

d.- Aurrekontuan beste milioi bat euro sartu da 2021. urtean zehar gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea errazteko aurreikusitako jarduerak sustatzeko. Diru hori beharrezkoa izango da jarduera hauek garatzeko:

Hitzarmenen eta gizarte entitateekin sinatuta dauden kontratuen mailakako egokitzapena, gizarte bazterketari aurre egiteko zerbitzuak garatuz (ostatuak, eguneko zentroak eta gaueko zentroak), lehen mailako arretatik arreta espezializatura pasatzeko.

Gizarteratzeko banakako prozesuei lotutako dirulaguntzak ematea.

Gizarte eta lan arloko inklusioari laguntzeko programak indartzea: ekintza positiboak prestakuntzan eta enplegagarritasunaren sustapenean.

e.- Bestetik, Gizarte Politiketako Departamentuak dirulaguntzen plan bat bultzatu nahi du gizarte zerbitzuetako zentroetan, lurralde osoan antzemandako beharrekin bat datozen ekipamenduen sare bat sustatzeko, ekipamenduen eskualdekako banaketa egokiarekin, eta dauden zentroetan kalitate maila onargarriak mantenduz.Horiek baitira, hain zuzen ere, plan horren helburuak.

2021eko berritasuna da aurrekontuak beharrezko zuzkidura jaso duela gizarte zerbitzuetako zentroetan inbertsioak egiteko hainbat dirulaguntza lerro ateratzeko, 200.000 eurotik gorakoak. Nolanahi ere, oraindik falta da Europako Batzordearen irizpena dirulaguntza horiek baimena behar ote duten jakiteko. Deialdi hori bertan behera geratu zen 2020an, pandemiak sortutako eraginagatik

f.- Ikerkuntza eta berrikuntza arloan aurreikusten da 2021. urtean 350.000 eurorekin eta 2022an beste 550.000 eurorekin (konpromiso kreditu modura) finantzatzea Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren barruan berrikuntza sustatzeko beste dirulaguntza lerro bat abian jartzea.

g.- Azkenik, “Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa” 400 programan, 2021ean beharko diren kreditu gehigarriak esleitu dira, “Kabia” foru erakunde autonomoak bere gain hartuko dituen adineko mendekoentzako udal jabetzako egoitza guztien kudeaketa gastuak finantzatzeko, horrela prozesua

d.- Se ha incluido en el presupuesto otro millón de euros para impulsar en 2021 actividades contempladas para favorecer la inclusión social de personas en riesgo de exclusión social, que serán necesarios para el desarrollo de estas actividades :

Adaptación paulatina de los convenios y de los contratos actuales con las entidades sociales desarrollando servicios de exclusión social (alojamientos, centros de día y de noche) para pasar desde la atención primaria a la especializada

Ayudas económicas vinculadas a procesos individuales de inclusión.

Refuerzo de los programas de apoyo a la inclusión socio-laboral: Acciones positivas en formación y fomento de la empleabilidad.

e.- Por otro lado, el Departamento de Políticas Sociales quiere impulsar un plan de ayudas económicas con destino a la inversión en centros de servicios sociales como forma de impulsar la existencia de una red de equipamientos acorde con las necesidades detectadas en el conjunto del territorio, con una adecuada distribución comarcal de éstos y con el mantenimiento de unos niveles aceptables de calidad de los centros existentes, objetivos perseguidos a través de este plan.

La novedad del año 2021 es que el presupuesto contiene la dotación necesaria para la convocatoria de varias líneas de subvenciones a la inversión en centros de servicios sociales, por importes superiores a 200.000 euros, a la espera de un pronunciamiento favorable de la Comisión Europea sobre si las subvenciones deben ser autorizadas. Esta convocatoria no pudo realzarse en el año 2020 por efecto de la pandemia.

f.- En materia de investigación e innovación se prevé la financiación con 350.000 euros en 2021 y otros 550.000 en forma de créditos de compromiso para 2022 para la puesta en marcha de una nueva línea de ayudas para fomentar la innovación dentro del proyecto Etorikizuna Eraikiz.

g.- Por último, en el programa 400 “Gestión de Organismos Públicos Forales” se han consignado los créditos adicionales necesarios en 2021 para la financiación de los gastos derivados de la asunción por fin en su totalidad por el Organismo Autónomo Foral Kabia de la gestión de todas las

amaitutzat emanez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 11ko erabakian xedatutakoari jarraikiz, zeinaren bidez onartu baitziren udal egoitzak Kabian sartzeko prozesuari buruzko txosten nagusia, adostutako eredua, egutegi proposamena eta plan ekonomikoa.

residencias para personas mayores dependientes de titularidad municipal, dándose por finalizado el proceso, conforme a lo dispuesto en el acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 11 de octubre de 2016, por el que se aprobó el informe general relativo al proceso de convergencia de las residencias municipales en Kabia, el modelo acordado, la propuesta de calendario y el plan económico.

08 Departamentua GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 08 DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Gizarte Politikako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Políticas Sociales | 1.549,20 | 797,20 | | 2.006,72 | | | | | | 4.353,12 |
| 10. Desgaituen laguntza/ Atención a personas con discapacidad | 2.528,26 | 5.820,33 | | 43.213,81 | | 380,00 | 1.505,00 | | | 53.447,41 |
| 11. Adinekoen laguntza/ Atención a personas mayores | 1.848,46 | 27.455,22 | | 81.987,30 | | | | | | 111.290,97 |
| 20. Plangintza eta informazio sistemak/ Planificación y sistemas de información | 1.097,76 | 300,88 | | 564,35 | | 2.389,82 | | | | 4.352,80 |
| 21. Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana/ Plan de inversiones y cooperación social | 1.043,95 | 47,77 | | 1.541,35 | | 4.740,35 | 7.292,84 | | | 14.666,27 |
| 22. Aldizkako prestazio ekonomikoak/ Prestaciones económicas periódicas | 1.411,46 | | | 77.492,55 | | | | | | 78.904,01 |
| 30. Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emak Inclusión Social y Atención a Mujeres Víctimas de | 1.477,91 | 5.351,05 | | 27.880,34 | | | | | | 34.709,30 |
| 31. Haur eta nerabeen babesa/ Protección a la infancia y la adolescencia | 2.152,91 | 33.246,64 | | 17.034,27 | | | | | | 52.433,83 |
| 40. Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa/ Gestión de Organismos Públicos Forales | 3.702,61 | 5.723,27 | | 55.642,38 | | | 1.400,00 | | | 66.468,27 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **16.812,52** | **78.742,36** | | **307.363,08** | | **7.510,17** | **10.197,84** | | | **420.625,97** |

